

## Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

124. zenbakia

Data 2008-06-30

20425 orria

### 7 UDAL ADMINISTRAZIOA

#### DONOSTIAKO UDALA

#### **Udalaren Kirolaren Kontseilu Aholkulariaren erregelamendua. Behin betiko onespena.**

#### DONOSTIAKO UDALA

##### Idazkaritza Nagusia

*Donostiako Udaleko Kiroleko Aholku Batzordearen Arautegiaren behin betiko onespena.*

Donostiako Udalbatzak, 2008ko apirilaren 4an egindako osoko bilkuran, Donostiako Udaleko Kiroleko Aholku Batzordearen Arautegiaren behin-behingo onespena erabaki zuen eta informazio publikorako epea zabaldu zuen, edozein pertsonen egokitzat zituen iradokizunak eta alegazioak aurkezteko.

Hasierako onarpen horren iragarkia 2008ko apirilaren 21ean Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu zen, espedientea jendeaurrera ateraz, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, 30 laneguneko epean.

Halaber, iragarkia Udaleko Iragarki Oholean ikusgai egon zen epe berberean.

2008ko maiatzaren 27an epea amaituta, ez da iradokizunik, ezta alegaziorik ere, aurkeztu eta ondorioz, Legea 7/1985 apirilaren 2ko Toki Jaurbidearen Oinarriak Arautzeko 49 artikuluan agintzen dena aplikatuz, Donostiako Udaleko Kiroleko Aholku Batzordearen Arautegiaren onespena behin betiko bihurtu da.

Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio bideari eta ados ez dagoenak bi hilabete du errekurtsioa jartzeko Euskal Herriko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietarako Sailaren aurrean.

Emandako epea argitalpen hau eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da.

Legea 7/1985, apirilaren 2ko Toki Jaurbidearen Oinarriak Arautzeko 70.2 artikuluan agintzen duena betez, bestetik, onartutako Araudiaren testu osoa argitara ematera goaz.

Donostia, 2008ko ekainaren 23a.—Iñaki Txintxurreta Perdiguero, Donostiako Udaleko Behin Behingo Idazkaria.

(1082) (7444)

*Donostiako Udaleko kiroleko aholku batzordearen arautegia.*

#### ZIOEN ADIERAZPENA

Donostiako Udalak, eta, zehatzago, Kiroletako Udal Patronatuak, lehenagotik ere bazuen esperientzia kirol arloko aholku batzordeen gaian. Hain zuzen, patronatuaren estatutuetan aurreikusita zegoen figura hori, eta eskumenak eman zitzaizkion. Erabaki honen aurretik, izan ere, bi aholku batzorderekin ziharduen: Kirol Elkarten Aholkularitza Batzordearekin eta Eskola Kiroleko Batzordearekin.

Esperientzia hori oso ontzat jo arren, bi gauza gertatu dira orain arteko jarduera berriz planteatzea eta, ondorioz, kontseilu berri hau ekarri dutenak. Alde batetik, Kiroletako Udal Patronatuak gogoeta estrategikoa egin du, eta horren ondorio izan da patronatuaren bi planak onartzea: Kiroleko plan estrategikoa eta instalazioetako plana. Batzorde horiek bateratu, parte-hartze handiagokoak bihurtu, eta eraginkorrago egin behar direla uste dutenak gogoeta horretara bildu dira. Hori dela eta, patronatu honetarako onartu den plan estrategikoan –zehazki, P5-05 Herritarren parte-hartzea ekintza lerroan– zehaztuta dago ikastetxeen, kirol federazioen, kirol klubuen, erabiltzaileen eta gimnasio pribatuen parte-hartzea ahalbidetuko duen aholku batzordea eratzea. Batzorde horrek ordezkatuko lituzke gaur egungo Kirol Klubuen Batzordea eta Eskola Kiroleko Batzordea.

Bestalde, Udalbatzak parte-hartzearen alde egin du erabakitasunez. Hartara, Herritarren Partaidetzarako Arau Organikoa onartu du. Arau horretako bigarren xedapen iragankorrean ezarrita dagoenez, herritarren parte-hartzezko udal batzorde eta baliabide guztiek sei hilabeteko epea izango dute, arau horretan xedatutakora egokitzeko.

Horregatik guztiagatik, araudi hau prestatu dugu: Donostiako herritar guztiei kirol arloan parte hartzeko eskubidea gauzatzeko modu eraginkorra eta benetakoa eskaintzeko xedea duen Kiroleko Aholku Batzordearako araudi hau, alegia.

## ATARIKO TITULUA

### *1. artikulua. Eraketa.*

Donostiako Udalak onartzen du kirola egitea eta gozatzea eskubidea eta herri intereseko gizarte jarduera dela, eta lagungarria dela gizabanakoaren osasuna babesteko, gizabanakoak hezi eta osorik garatzeko, gizabanakoaren bizi kalitatea hobetzeko, eta gizabanako bakoitzaren eta gizarte osoaren ongizatea areagotzeko. Orobat, uste osoa du gobernatze on baten printzipioen barnean dagoela herritarrek parte hartzea bai kirol arloko politiken sorreran, bai proiektuak nahiz programak planifikatu eta balioztatzekeo prozesuetan. Ondorioz, Kiroletako Udal Patronatuko estatutuekin bat, Herritarren Partaidetzarako Araudian eta Plan Zuzentzailean xedatutakoa oinarri hartuta, eta kirolak Donostiarako garrantzi estrategikoa duenez, Kiroleko Aholku Batzordea eratu da.

### *2. artikulua. Helburua.*

Kiroleko Aholku Batzordea, sektorerako partaidetza organo aholku-emaile gisa eratu da. Eginkizun hauek ditu: Informatzea eta eztabaidatzea, proposamenak egitea, kontsultak egitea eta aholkuak ematea, Donostiako herritarrak kirolean ari daitezela sustatzeari dagokionez.

Batzordeak hiriko kirol eragileen parte-hartzea sustatzea izan beharko du helburutzat, hiria kirol eremu bihur dadin, kirola egin ohi duten herritarren kopurua haz dadin, eta hirian herritarren behar eta interesei erantzungo dien kalitateko kirol eskaintza izan dadin.

### *3. artikulua. Funtzioak.*

Kiroleko Aholku Batzordeak honako eginkizun hauek izango ditu:

1. Kirol arloko udal politikak eztabaidatzea.
2. Kirol arloko eskumena duen udal erakunde gisa, kiroleko zinegotzigoarekin eta Kiroletako Udal Patronatuarekin lankidetzan aritzea, kirola sustatzeko politikei buruzko txostenak eta azterlanak egiten.
3. Donostiako Kiroleko Plan Estrategikoak taxutzen eta, behar izanez gero, haien segimendua egiten laguntzea; bai eta Udalak kirolaren arloan egiten dituen gainerako plan espezifikoeetan ere.
4. Hirian kirolari lotuta dauden arazoaren gainean gogoeta egitea, eta organo eskudunari proposamenak egitea.
5. Kirola sustatzen eta kirola egiten diharduten kirol eragile publiko nahiz pribatuen arteko koordinazioa bultzatzea.
6. Bere barne erregimeneko arauak onartu eta aldatzea (lan metodoak eratzeko modua, segimendua, saioen iraupena, batzordekideen akreditazioa, eta abar), araudi honi jarraikiz.
7. Donostiako Kiroleko Aholku Batzordeak beharrezko jotzen dituen kirol instalazioak oro egokitu eta eraiki daitezzen proposatzea.
8. Mugaz gaindi egituratzea bideratuko duten neurriak sustatzea. Hartara, Biarritzko, Baionako eta Iparraldeko beste herri batzuetako udalekin koordinatutako kirol jardunak aldeztuko dira, bai eta beste kirol erakunde batzuekin koordinatutakoak ere.
9. Kirol arloan eskumenak dituzten gainerako erakunde mailekin (Eusko Jaurlaritza eta Aldundia) koordinatzea sustatzea; eta, bereziki, maila horietako aholku batzordeekin harremanetan izatea eta koordinatzea.
10. Hezkuntzarako eta herritarrak kontzientziatzeko neurriak sustatzea, «joko garbia» kontzeptuaren inguruan, bereziki eskola kirolaren arloan.
11. Lan programak eta neurriak sustatzea, oro har kirol jardunaren bidez etorkinak gizartekotzen laguntzeko.
12. Kirol arloan euskararen erabilera normalizatzen laguntzeko neurriak ezar daitezzen sustatzea.

## I. TITULUA

### GOBERNU ORGANOA

### *4. artikulua. Osaera.*

Kiroleko Aholku Batzordeak organo hauek izango ditu:

- a) Batzordearen Osoko Bilkura.
- b) Batzordeburua.
- c) Batzordeburuordea.

- d) Idazkaria.
- e) Batzorde Iraunkorra.
- f) Lan batzordeak.

*5. artikulua. Batzordearen Osoko Bilkura.*

Osoko Bilkura da batzordeko organo gorena, eta batzordea osatzen duten kideek eratzen dute, kide horiek - hitza eta botoa dituztela:

— Batzordeburua: Alkatea.

— Kiroletako zinegotzi ordezkaria.

— Udal talde bakoitzeko zinegotzi bat.

— Lizentzia federatuak dituzten hiriko kirol klubetako bost ordezkari:

— Lau ordezkari, Udalaren kirol instalaziorik kudeatzen ez duten kirol klubetakoak izango dira. Klub horiek hautatuko dituzte lau ordezkariok, bozketa bidez, sektoreak proposatutakoaren artean.

— Ordezkari bat, Udalaren kirol instalazioak kudeatzen dituzten klubetakoak izango da. Bi ezaugarri horiek dituzten klubek proposatutakoaren artean hautatuko da, bozketa bidez.

— Hiriko ikastetxeetako bost ordezkari. Ikastetxe horiek hautatuko dituzte, sektoreak proposatutakoaren artean, bozketa bidez. Behar beste pertsonarik egonez gero, hezkuntza maila bakoitzak (lehen, bigarren eta batxiler) gutxienez ordezkari bana edukitzeak lehentasuna izango du.

— Zozketaz hautatutako bi pertsona fisiko. Interesa duten eta eremuko erroldan erregistratuta dauden pertsonen zerrendatik hautatuko dira.

— Zozketaz hautatutako bost pertsona. Kiroletako Udal Patronatuko kirol txarteleko abonatu diren eta Batzordearen eginkizunetan parte hartzeko interesa agertu duten guztien artean egingo da zozketa hori. Bost ordezkarietatik, plaza bat gordeta egongo da 65 uretik gorako pertsona batentzat, eta beste bat abonatu ezgaitasundun batentzat. Baldintza betetzen duen borondatezko inor ez badago, plazak beste abonatu batzuen bidez beteko dira.

— Hiriko gimnasio pribatuen ordezkari bat, gimnasio pribatuen elkarteak izendatua.

— Gipuzkoako kirol federazioen ordezkari bat, Gipuzkoako kirol federazioen elkarteak izendatua.

— Egoitza Donostian izanik, azken bost urteetatik gutxienez hirutan maila goreneko lehiaketan talde bat izan duten kirol erakundeen ordezkari bat, erakunde horiek izendatua.

— EHUren ordezkari bat.

— Kirol jarduerak antolatzen dituzten erakundeen ordezkari bat. Erakunde horiek hautatuko dute, bozketa bidez, sektoreak proposatutakoaren artean.

— Gipuzkoako Foru Aldundiaren barruan, kirol arloko eskumena duen sailaren ordezkari bat.

— Udaleko Gizarte Ongizate arloaren ordezkari bat. Hitza izango du, baina botorik ez.

— Udaleko Gazteria, Hezkuntza eta Berdintasun arloaren ordezkari bat. Hitza izango du, baina botorik ez.

— Euskararen Udal Patronatuaren ordezkari bat. Hitza izango du, baina botorik ez.

Kirolari loturik dauden eta Kiroleko Aholku Batzordera etortzeko interesa agertzen duten erakunde eta elkarten ordezkariak etorri ahaliko dira, batzordeburuak gonbidatuta, nahiz eta aurreko kategorian horietan sartuta ez egon. Ordezkari horiek, uneko aztergaietan duten esperientzia dela eta, balio gehigarria eskaini beharko diote batzordeari. Ordezkari horiek txandakakoak izango dira, eta saio bakoitzean ezingo dira hiru baino gehiago izan.

*6. artikulua. Batzordearen Osoko Bilkura.*

1. Batzordearen Osoko Bilkura eratzen duten kideek ahalmen hauek izango dituzte:

— Batzarraldien eztabaidetan parte hartzea.

— Kirola sustatzeko politikari buruzko proposamenak egitea, 3. artikuluari jarraituz.

— Gai zerrendan sartutako gaiari buruzko informazio edo dokumentazio zabalagoa eskatzea, Batzordeko Idazkaritzaren bitartez.

— Boto eskubidea erabiltzea.

— Galde eta erreguak azaltzea.

— Kide gisa dagozkien gainerako eginkizunak egitea.

2. Batzordeko kideek ezingo diote beren buruari eman ordezkari-tza eginkizunik. Eginkizun hori batzor-

deburuari dagokio, salbu behar bezala onartutako arau edo akordio baten bidez batzordeko kide bati berariaz eman baldin bazaio.

3. Batzordekideen agintaldia lau urtekoa izango da, salbu bere karguagatik kide bada; kasu horretan, kargu hori duen bitartean izango da batzordekide. Era berean, Kiroletako Udal Patronatuko abonatu enpresari dagozkien kideek, Osoko Bilkurako kide izateari utziko diote abonatu izateari uzten diotenean.

4. Heriotza, ezgaitasuna, dimisioa, kargutik kentzea edo antzeko kausak direla eta hutsik geratzen diren postuak, azaldutako bide hori bera erabiliz beteko dira. Hutsune hori Idazkaritzari jakinarazten zaionetik hilabeteko epea izango da postua beteko duena izendatzeko.

5. Batzordekideak kargutik kentzea, haiek izendatzea proposatu zuten erakundeek edo organoek eskatuta egin ahalko da. Era berean, Osoko Bilkurako kide izateari utziko diote elkarren segidako bi bilkuretara edo elkarren segidako ez diren hiru bilkuretara etorri ez direnek. Kargu galtze horrek ekitaldi horretan bertan izango du eragina, baina hurrengo urtean berriz kargua hartu ahalko du kide horrek.

6. Batzordeburuak, batzordeak behar bezala funtziona dezan bermatzeko, beharrezko eta egoki jotzen duen laguntza tekniko (Udalekoa edo Udalez kanpoko) eskatuko du.

*7. artikulua. Batzordeburua.*

1. Alkatea izango da batzordeburu.

2. Kiroletako ordezkari den zinegotziari eskuordetu ahalko dio batzordeburu kargua.

*8. artikulua. Batzordeburuaren eginkizunak.*

a) Batzordearen ordezkari izatea.

b) Bilkura arruntetarako eta berezietarako deia egitea.

c) Udaleko teknikariei gonbita luzatzea, bai eta erakunde eta elkarteetako ordezkarietara ere.

d) Gai zerrenda onartzea.

e) Bileretako buru eta moderatzaile izatea.

f) Herritarren parte-hartzea bermatzea.

g) Erakundeek, elkarteek edo herritarrek batzordera etortzeko egindako eskaerak ebaztea.

h) Batzordeak izapidetzera aurkeztutako proposamenak eta ekimenak aurkeztea Udal Gobernuari eta Kiroletako Udal Patronatuari.

i) Kiroletako Aholku Batzordearen eta Udaleko kudeaketa eta gobernu organoen arteko harremana koordinatzea.

j) Batzordeburu gisa dagozkion gainerako eginkizunak egitea.

*9. artikulua. Lehendakariordetza.*

Herritar erakunderen bateko ordezkari eta batzordeko kide den gizabanako bat izango da batzordeburuorde. Erakunde horiek proposatua, eta batzordean gehiengoz onartua izango da.

*10. artikulua. Idazkaria.*

1. Batzordeko idazkari lana, Udaleko idazkari nagusiak edo hark eskuordetutako pertsonak egingo du. Bere eginkizunak betetzeko, Kiroletako Udal Patronatuaren egitura izango du sostengu.

2. Idazkaria ez da batzordeko eskubide osoko kidea izango, batzordea eratzeko, gehiengoetarako eta bozketetarako behar den quorumaren ondorioetarako. Batzordera gonbidatutako gainerako udal teknikariek ere izaera bera izango dute.

*11. artikulua. Idazkariaren eginkizunak.*

Idazkariak honako eginkizun hauek izango ditu:

a) Bileretara joatea.

b) Batzordeburuari gai zerrenda proposatzea.

c) Bileretako aktak egitea.

d) Deiak, gai zerrendak eta batzordean sortzen diren dokumentuak bidaltzea.

e) Batzordearen erabakiak izapidetzea.

f) Kasuan kasu, laguntza juridiko egokiarekin, aztertzen diren gaien lege alderdien gaineko aholkuak ematea.

g) Idazkari gisa dagozkion gainerako eginkizunak egitea.

*12. artikulua. Lan batzordeak.*

1. Lan batzordeak eratu ahalko dira kirol arloko gai zehatzak espezifikoki lantzeko, Batzordearen Osoko Bilkurak beharrezko jotzen duenean.
2. Batzordeko Osoko Bilkurak zehaztuko ditu lan batzordeen eraketa, izena eta funtzionamendua.
3. Batzordeburuaren erantzukizuna da lan batzordeek beren zereginak betetzeko behar dituzten Udaleko nahiz udalaz kanpoko laguntza teknikoa ematea.
4. Lan batzordeek beren lanen ondorioen berri emango diote Batzordearen Osoko Bilkurari.

*13. artikulua. Batzorde Iraunkorra.*

Batzordeburuak, Kiroletako zinegotzi ordezkariak eta Osoko Bilkurak bere kideen artean hautatutako zazpi lagunek osatuko dute. Azken zazpi lagun horiek edozein kidek proposa ditzake, eta talde banatakoak izan beharko dute.

Beti ere, batzorde horretako kide izan beharko dira kirol klubetako bi ordezkari, ikastetxeetako bi ordezkari, Kiroletako Udal Patronatuko kirol txartelako abonamendua dutenen bi ordezkari, eta beste talde - batzuetako ordezkari bat.

*14. artikulua. Batzorde Iraunkorren egitekoak.*

1. Kiroleko Aholku Batzordeko gaien izapidetze arrunta egitea, Batzordearen Osoko Bilkura bilduta ez dagoenean.
2. Batzordearen Osoko Bilkurari Kiroleko Aholku Batzordearen egutegiak eta jarduteko lehentasunak proposatzea, eta horiek betetzen direla egiaztatzeko segimendua egitea.
3. Batzordearen Osoko Bilkurak bere esku uzten dion beste edozein eginkizun.

*15. artikulua. Ordezkatzea eta eskuordetzea.*

Ordezko gisa izendatutakoek ordezkatu ahalko dituzte Kiroleko Aholku Batzordea osatzen duten organoetako titularrak, baldin gaixotasuna edo bestelako kausa justifikaturen bat gertatu bada. Horregatik, izendatze bakoitzean titularra eta ordezkoa adieraziko dituzte.

## II. TITULUA

### ANTOLAKUNTZA ETA FUNTZIONAMENDUA

*16. artikulua. Bilkura arruntak.*

1. Kiroleko Aholku Batzordeak lau hilean behin egingo ditu bilkura arruntak.
2. Batzorde iraunkorrek hiru hiletik behin egingo ditu bilkura arruntak.
3. Bilera edo bilkura arruntetarako deia, bilkura eguna baino hamabost egun baliiodun lehenago egin beharko da. Deiarekin batera, gai zerrenda eta eztabaidatu beharreko gaien laburpena ere bidaliko dira.
4. Batzordeburuak egingo du deia.
5. Eztabaidatu beharreko gaien proposamenak, deia egin baino hiru egun lehenago egon beharko du Aholku Batzordeko idazkariaren esku.
6. Batzordeburuak, bere ekimenez edo Aholku Batzordeko edozein kidek hala eskatuta, gai zerrendan ez dagoen beste edozein gai proposatu eta bozkatzeko aurkeztu ahalko du, premiazko gisa, bozketa hasi aurretik. Horretarako, ezinbestekoa izango da kide guztiak bertan izatea, 30/92 Legeari jarraikiz.

*17. artikulua. Bilkura bereziak.*

1. Batzordeburuak beharrezko jotzen badu, bilera bereziak egin ahalko dira. Halaber, bilkura bereziak egin ahalko dira Aholku Batzordea osatzen duten erakundeen %50ek baino gehiagok hala eskatzen badu.
2. Bilera berezirako deia, deia egiteko eskaera egin ondoko bi egun baliiodunetan egin beharko da. Deia egiten denetik gehienez ere bost eguneko epean egin beharko da bilera.
3. Deia, bilerarako jarritako data baino bost egun lehenago egin beharko da.

*18. artikulua. Bilkuren araubidea.*

1. Kiroleko Aholku Batzordea lehenengo deialdian eratutzat joko da, baldin bilerara, gutxienez, batzordea osatzen duten eskubide osoko kideen erdia gehi bat joaten baldin badira. Eta bigarren deialdian eratu dela joko da, ordu erdi geroago, edozein dela ere etorritako kideen kopurua. Betiere, beharrezkoa da batzordeburua eta idazkaria edo haien legezko ordezkariak etorritza izatea.
2. Etorritako eskubide osoko kideen botoen gehiengo soilaz hartuko dira erabakiak.
3. Gai zerrendan ageri diren gaiez erabakiko dute, bai eta premiazkoak direlako aztertzen diren gaiez ere.
4. Idazkariak bilera bakoitzeko akta egingo du. Aktetan, datu hauek jasoko dira: Etorritakoak,

deliberazioen alderdi nagusiak, eta hartutako erabakien edukiak.

5. Aktak hurrengo bilkuran onartuko dira. Idazkariak, dena dela, hartutako berariazko erabakiei buruzko ziurtagiria egin dezake, akta geroago onartzekoa baldin bada ere.

*19. artikulua. Informazio eskaerak.*

Udal zerbitzuek Aholku Batzordeak egindako informazio eskaerei erantzun beharko diete, gehienez ere 30 eguneko epean. Epe hori, txostena jasotzen duten egunetik hasiko da. Txostena, batzordeburuaren edo idazkariaren bitartez jasoaraziko da.

*20. artikulua. Xedatu gabeko egoerak.*

Araudi honetan xedatu ez den gai orotarako, Udalbatzaren Organo Araudian eta Herritarren Partaidetzarako Araudian ezarritakoa hartuko da aintzat.